

ESTÁTUA DE OQUENDO.



Acta de la colocacion de la primera piedra.¹

Gipuzkoako probinziaren buru dan Donostiako Urian, milla zortzireun larogei ta zazpigarren urteko Agorraren bostean, arratsaldeko bost orduetan, lenez aurretik señalatua zegoen bezela, Uri ontako seme On Antonio Okendo-koaren oroitzak beti iraun dezan Españaiko ichas-agintari arri alcha bear zaion oroikarriari asiera emateko, aurkeztu ziran Zurriola deritzaion len esan dan Uri ontako ibiltegian, eta ura egin bear dan lekuan

Bere Aundientz Erreiñuko Erregiñ Gobernutaria, beraren seme gurgarri Bere Aundientz Errege Alfonso XIII-garren eta Beren Erregezko Gainde Asturias-etako Lenesa Ona Maria Mercedes eta Infanta Ona Maria Teresa, Beren Aundientz eta Gaindeen jarraigoa konpontzen zutelarik ondorengo oek:

Jaun chit geidiati On José Alvarez Toledo eta Silvakoa, Medina Sidoniako Dukea, Villafranca eta Velez-etako Markesa eta gañerakoa, Erregiñ Gobernutariaren Zaldun jaun, Mendi-nagusi eta Errege-Jauregiaren buru artekoa.

Jaun chit geidiati On Ignazio Maria Castillo eta Gil Torrekoka, Bilboko Kondea, jaundi Españarra, gerrarien buruzagia, Errege zaidiaren zuzendari eta agintari goiena.

Andre chit geidiati Ona Maria Eulalia Osorio Moscoso eta Carvajal, Medina Torres-etako Dukesia eta gañerakoa, Errege-Jauregiko ganbarari nagusia.

Jaun chit geidiati On Juan de Dios Córdoba, gerrarien buruzagi eta gañerakoa, Beren Aundientzen gela gudartarraren zuzendaria.

(1) Es traduccion literal, hecha por nuestro Director, en virtud de acuerdo tomado al efecto por la Comision ejecutiva de la estatua.

No tenemos, noticia de que exista, en bascuence, documento alguno análogo anterior á este.

Jaun chit geidiati On José Osorio eta Silva, Alcañices eta Balvas-es-etako Markesa, Sesto eta Albuquerque-ko Dukea, eta gañerakoa, Beren Erregezeko Gainde Asturias-etako Lenesa eta Infanta Ona María Teresa-en Jauregiburu eta Zaldun nagusia.

Jaun chit geidiati On Francisco Llano eta Herrera, onzidiaren agintari-urrena, eta gañerakoa, Beren Aundientzen gela gudartarraren laguntaria.

Andre chit geidiati Ona Francisca Facon Roscianokoa, María Luisaren Dama Noblea, Beren Erregezeko Gainde Asturias-etako Lenesa eta Infanta ona María Teresa-ren zai-ordekoa.

Jaun chit geidiati On José Antonio Pascual eta Palavicino, Beniel-ko Markesa, eta gañerakoa, Beren Aundientzen kanpo-zalduna.

Jaun chit geidiati On Práxedes Mateo Sagasta, Ministroen Batzarreko Dianagusia.

Jaun chit geidiati On Manuel Alonso Martínez, Justizia eta Emaiztaren Ministroa; eta

Jaun chit geidiati On Rafael Rodríguez Arias, Itsaskizunen Ministroa.

Etorri ziran, ala berean, egintza onetara:

Jaun chit geidiati eta argidotar On Mariano Miguel Gomez, Vitoriako eliz-barruti ontako Apezpikua.

Jaun chit geidiati On José Loma, Euskal-Probinzien gudartar buruzagia.

Jaun On José María Perez Caballero, Probinzi onetako Gobernari uritarra.

Jaun chit geidiati On Adolfo Rodríguez Bruzon, Probinzi au berearen Gobernari gudartarra.

Jaun On Luis Borja-koa, esan dan Probinzi onetako Itsaskizunen buruzagia.

Gipuzkoako probinzi onetako Bilguma chit geidiatia, bere Dianágusi On José María Unceta jauna buru duela.

Jaun On Cosme Churruca-koa, Uri ontako Justizi-echearen Dianagusia.

Jaun On Ignacio Mercader, Uri ontako Tratulari Bilgumaren Dianagusia.

On Rufino Machiandiarena eta On Antonio Arzac jaunak, Euskal-itz-jostaldien Dianágusi eta Goarpelaria.

Uri ontako Bilguma chit geidiatia, zeña konpontzen duten jaunak diran On Gil Larrauri, Alkate Dianagusia, On Alfredo Laffitte, On Miguel Altube ta On Tomás Bermingham, Alkate ordezkook; On Manuel Urcola, On Mauricio Rodríguez, On Roman Marticorena,

On José Echeverría, On Raimundo Sarriegui ta On Manuel Tornero, bilgumakoak, eta On José Victor Amilibia-koa, esantako Bilgumaren Goarpelaria.

Esantako oroigarriaren Aldimaitz egillea, zeña konpontzen duten jaunak diran: On Ignacio Lardizabal, Gipuzkoako probinzi ontako Bilguma chit geidiatiaren Dianagusi-ordekoa, On José Gomez Arteche-koa, gerrarien buruzagia, On Fernando Colmenares, On Fermin Machimbarrena, On Pedro Soraluce, On Manuel Echave, On José Goicoa, On Eusebio Lopez «Diario de San Sebastian» izentzat duen eguneroko peper moldizkiratuaren Zuzendaria, On José de la Peña, «Eco de San Sebastian»-aren Zuzendaria ala berean, On Eduardo de la Peña, zeña dan «Voz de Guipúzcoa»-rena, On José Cárcer-koa, On Manuel Lizarriturri, On Antonio Egaña, On Leonardo Moyua, On Ramon Camio ta On Luis Calisalvo.

Eta aurkezten da, azkenik, Uri ontako urkondear ta Iruñako Dakiregiko barrutikoa dan Eskribau erreal eta ezagutu bean agertzen dana, zeña deitua izan dan egintza au nola gertatzen dan fede jakiniez azaltzeko.

Lendabizi, esantako jaun chit geidiati eta argidotar Vitoriako eliz-barruti ontako Apezpikuak bedeinkatu zuen ontarako oituratzen diran otoitz eta bainandeakin, len esan dan On Antonio Okendo-ko Españaiko ichas-agintariaren oroitzak beti iraun dezan alchatzen zaion oroigarriaren lenbiziko arria, zeña jarria izan zan arren zimendutarako siñalatua zegoen tokiyan, arri onen beraren gañean berunea estalitako burnizko kucha bat ipiñirik, bere barruan dirumota oek zituela: ogei ta bost pezetako bat, amar pezetako beste bat, biak urrezkoak; bost pezetako bat, bi pezetako beste bat, pezetako beste bat, eta berrogei ta amar eungarrenko beste bat, zillarrezkoak, guztiak Alfonso XII-garrenaren Erreiñukoak, eta gañera Probinzi ontako Paper-Nagusiaren azkeneko lumeroaren ostaldi bat. baita ere beste batzuek bertako eguneroko paper moldizkiratu «Diario de San Sebastian», «El Eco de San Sebastian» eta «La Voz de Guipúzcoa»-enak, ala berean «Euskal-Erria» deritzaion amar egunetik amarrera Uri ontan bertan argitaratzen dan Errebista-renak, eta larru-paper bat egun ontarako euskaraz izkribatuak izan diran mol-daera batzuekin. Kucha ontan bertan jarriko da ere fede jakiniezko kondaira onen pareko bat gaztelaniaz eta euskaraz.

Ondoren, Bere Aundientz Erreiñuko Erregiñ Gobernutariak bota zuen esantako arriaren gañera zillarrezko palacho batekin lenbiziko naskarill parte, izanik orduan bertan atsegiñ eta pozez ojukatuak Beren Aundientzak, Españaier onziditaldi portu onetara egintza on-

tarako etorririk, aurrez-aurre ageri danagandik, ala nola Uri ontako biztanle eta emen arkitu diran kristau guziakgandik.

Onekin bukatzen da egintza au, zeña firmatzen duten Bere Aundientz Erreiñuko Erregiñ Gobernutariak, beraren jarraigoko jaundi eta len esantako gañerako jaun egintza ontara etorri diranak, eta guzia egia dala adierazi eta fede jakiña emateko firmatzen denik ere, esantako Eskribauak.

